

Ziberfeminismoa,

hezkidetzeta eta alfabetizazio digital kritikoa



ZIBERFEMINISMOA, HEZKIDETZA ETA ALFABETIZAZIO DIGITAL KRITIKOA: SAREAN ALDAKETA ERAGITEKO AUKERAK

Judy Wajcman soziologoak aspaldian ohar-tarazi zigun: “Ezin gara teknologietatik at geratu”. Gaur egun informazioa eskuratu, datuak igorri, komunikatu eta beste pertsonekin harremanetan egoteko, gero eta tresna gehiago dauzkagu, berrikuntza etengabekoa da. Interneten erabileran oinarritutako Harreman, Informazio eta Komunikazio Teknologiai (HIKT) deiturikoak dira. Dena den, etengabeko berrikuntza horretan kultura matxista eta sistema patriarkalaren eraginez “off line” mundutik datozen arrisku digitalak agertu dira.

Ordenagailuak, telefono mugikorrek, eta tabletak, errealitate berriak sortzen dituzten objektuak dira, bereziki gazteen artean. Internet nerabeentzako berezko espazioa bilakatu da eta gazteentzako horretan parte hartzea guztiz beharrezkoa da. Izan ere, bertan ez egotea taldetik kanpo geratzea da. “Gaur egungo nerabeez hitz egiteko haien mundu digitalaz hitz egitea beharrezkoa da. Dena sarera eramaten da, baita sistema matxista ere, haren arau eta kodeekin” azaldu du Deustuko Unibertsitateko Estibaliz Linares Bahillo irakasle eta ikertzaileak.

Belaunaldi berriek ikasi, informatu, komunikatu eta harremanetan egoteko erabiltzen dituzten berezko moduekin lotura galtzen badugu haien heziketa hobetzeko ahalmena galduko dugu ere. “Orokorrean, irakasleak nahiko galduta daude gai horretan. Ziberindarkeriari buruzko albiste alarmistei gehiegizko garrantzia ematen diete, eta ikasgeletan debekua eta beldur-raren diskurtsoa helarazten da. Biktima ez da inoiz indarkeria jasatearen errudun, eta ezinbestekoa da mezu hori igortzea. Indarkeria sufritzeko arriskua dela eta, sarean gehiegi egotea gaitzesten duten diskurtsoekin kontuz ibili behar dugu. Izan ere, diskurtso horiek biktima izandakoa berriro biktimizatzen dute eta, hori, oso arriskutsua da. Hezitzaileek ziberindarkeria genero ikuspuntutik etengabe lantzea funtsezkoa da” adierazi du Youtuben Psico Womanek (Isabel Duquek).

Irakasle askok errealitate digitala helduen ikuspuntutik ikusten dute eta, beharbada, ez dute benetan ulertzen nerabeentzat sare sozialetan bizitzeak zer suposatzen duen. “Sareen erabilerari buruzko aurreiritzi negatiboak baino ez badauzkagu, ezin izango dugu sareetan ematen den indarkeriaren errealitate soziala aztertzen lagundu. Gai horretaz ezagutza sakona izateko nahitaezkoa da entzutea eta haien munduan parte hartzea. Sare soziala izatea eta profil bat sortzea zer esan nahi duen bizi behar dugu, eta sareetan saiatu, huts egin eta disfrutatu ere” azaldu du Ianire Estébanez psikologoak “La ciberviolencia hacia las adolescentes en las redes sociales”, irakasleei zuzendutako bere azken gidan.

Generoaren araberako bigarren eta hirugarren arrakala-digitalak

Estibaliz Linaresekin egin eta Emakundek argitaratutako “El iceberg digital machista: Análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia en la CAE” ikerketan egiaztatu da trebetasunei eta erabilerei lotutako genero arrakala-digitalak ematen direla. Eta ohikoak dira ere emakumeen gorputzen hipersexualizazioa, gizonezkoen menderatze digitala, ziberkontrola eta ziberjazarpen sexual edo/eta sexista.

Linaresen ikerketan azaltzen den moduan Harreman, Informazio eta Komunikazio Teknologiai erabiltzeko orduan, trebetasunen eta gaitasunen desberdintasuna ematen da emakume eta gizonen artean, eta horrek generoaren araberako bigarren arrakala-digitala sortzen du. Arrakala-digital horrek emakumeak mundu teknologikoan sartzea zailtzen du.

Teknologien erabilera orokorrean eta, adibidez, Youtube, sare sozialak eta bideo-jokoak bezalako bitartekoena, genero eskemek baldintzatzen dute eta horrela sortzen da generoaren araberako hirugarren arrakala. Arrakala hori dela eta, teknologiai generoaren arabera erabiltzen

dira: neskek batez ere harremanetarako eta komunikatzeko erabiltzen dituzte eta mutilek dibertsio, esplorazio eta nabigaziorako. Bideo-jokoek funtsezko papera dute generoaren araberako bigarren eta hirugarren arrakalatan. Ikerketan azaltzen den moduan, “bideo-joko salduen artean protagonistak beti gizonak izaten dira, eta, emakume bat agertzen bada, bere gorputza objektu bihurtuta eta gehiegi erotizatuta izaten da. Bideo-jokoek edukiek eredu maskulinoa gorensten dute, izaki lehiakor, bortitz eta ez oso enpatiko baten eredu gehienetan, eta arrazismoa, matxismoa, xenofobia eta LGBTQI+fobia bezalako jarrerak erakusten dituzte”.

Dena den bideo-jokoek diseinu matxista ez da neskak kanal horretatik aldentzen dituen arrazoi nagusia. “Bideo-jokozaleak ez dira haien heziketa onagatik nabarmentzen pantaila baten atzetik idatzi edo hitz egiten dutenean, are gutxiago pantailaren bestaldean emakume bat dagoela jakin edo susmatzen badute. Jarrera paternalistak, irainak, jarrera sexistak eta abar ohikoak izaten dira” salatu du bideo-jokoetan aditua den emakume batek A-fregar web orrialdean.

Web orrialde horretan emakume jokalariek on line jasaten duten sexismoa biltzen da eta indarkeria eta irainak pairatu dituzten emakumeak mintzo dira. Eraso horiek esaldi honetan laburbildu daitezke: “Zuk egin behar duzuna harrikoa egitera joatea da”. Beste adibide bat AzulCorrosivok idatzitako “Una semana jugando online siendo mujer” artikulua da: bitakora koaderno baten modura egin da eta pantaila-argazkiak erakutsiz emakume jokalaria baten zoritxarrak kontatzen ditu.

Sexismoa Youtuben

Youtuberrak gaur egun erreferenteak bihurtu dira nerabeentzat. Linaresen ikerketan azaltzen den moduan, nesken kopuru handi batek, moda eta edertasunaz hitz egiten duten pertsonak jarraitzen dituzte, eta baita familia bat osatu duten eta ama

AMPLIANDO

nola izan erakusten duten youtuberrak. Ikertzaileak nabarmendu du nerabeengan eta, bereziki, neskeengan maitasun erromantikoaren zenbait mito normalizatuak eta barnerratuak geratzen direla eta horiek menpekotasunezko harremanak izatera eramaten dutela. Sare sozialetan bestalde, irudiaren nagusitasuna ematen da eta horrek neskei egiten die kalte bereziki.

Mundu digitalean neskek eta mutilek jarraitzen zizuten erreferenteak zehatz-mehatz aztertu eta gero, Isabel Duquek eremu birtualera salto egin zuen tresna berberak erabiliz. "Erreproduzio gehien dituzten bideoak arrazismoa, xenofobia, LGTBQI+fobia, emakumeen aurkako indarkeria eta sexismoaz beterik daude eta, askok, bortxaketaren kultura sustatzen dute. Edukiak guztiz kritikagarriak dira baina ez genituen bestelako erreferente batzuk eskaintzen. Helburu horrekin, 2015ean Psico Woman sortu genuen: sexologia eta aniztasunaren onarpenari buruzko kontrainformazio saio bat. Ikuspuntu feminista batetik egindako proiektua da: nerabeei zuzenduta dago eta haien espazioak eta haien bitartekoak erabiltzen ditugu" azaldu du Duquek.

Ziberfeminismoa, erantzun kolektiborako eta autodefentsarako aukera
Ziberindarkeriaren transmisioa gelditzeko



funtsezko hiru faktore nabarmendu ditu Linaresek bere ikerketan: "ziberfeminismoa, hezkidetzako pedagogia eta alfabetizazio digital kritikoa". Sarea oso zabala da, erreferente ezberdinak aurkitu daitezke eta mezu berriak sortu ere. Berdintasuna eta aniztasunaren alde lan egiten duten youtuberrak zeregin horretan ari dira, adibidez Queer Avengers, Spanish Queens, The Tripletz, Bolli, KoalaRabioso, Triguillo, Gominuke, Dulceida, Yellow Mellow, Vicu Villanueva, Andrea Campton, Herrejón, Miare, Psico Woman, Perfect Drama, Andy Asadaf, Feminista Ilustrada, Lola Vendetta,

El Tornillo de La Tuerka y En La Frontera de Público, Yolanda Domínguez, (e)stereotipas, Otra norma, Negra Flor o Eres una caca.

Sareetan ematen den indarkeriaren prebentzioa lantzeko, sortu behar ditugu estrategiak neskei eta mutilei irakasteko indarkeriarik gabeko harremanak izatera. Eurekin landu behar dugu ere pertsonen egiten dizkieten komentarioek izan ditzaketan ondorioetaz konturatzea. Hori dena egin behar dugu haien espazioan eta haiek erabiltzen dituzten bitartekoekin.

Irakasleentzako tresnak:

- Acoso.online Plataforma. Baimendu gabeko irudi eta izaera sexuareko bideoen argitalpen eta zabaltzeari aurre egiteko Red de Autodefensa Online taldeak landutako proiektua da.

- "El iceberg digital machista: Análisis, prevención e" intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la Aadolescencia en la CE: Ikerketa honek emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasun ezak Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen interakzio digitalean dituen eraginak aztertzen ditu.

Interesgarria / De Interés**GUÍA**

3.0 genero arrakala digitala | Brecha digital de género 3.0

Algunos apuntes clave en torno a la "Brecha digital de género 3.0" y ciberviolencias machistas

El equipo Deusto Valores Sociales presenta los principales resultados de su proyecto "Análisis de la tercera brecha digital de género de las personas adolescentes de la CAE" (PI_2016_1_0029), financiado en la convocatoria de "Investigación Básica y Aplicada" del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

[IKUSI](#)

BIDEOA**Nahiko hezkidetzaz jardunaldi orokorra**

"Eremu digitalean haur eta nerabeen artean transmititzen den sexismoa eta matxismoa" hitzaldia Estibaliz Linaresen eskutik. 2020ko urtarrilean egindako Nahiko programaren jardunaldi orokorrean aurkeztu zuen bere ikerketa.

[IKUSI](#)

IPUINA**Tximeleta Belarriak**

Gure desberdintasunak ontzat hartuz, geure burua den bezalakoa onartuz, gure nortasuna indartzen dugu eta hori da lehenengo pausua iseka egiten duten hoiei aurre egiteko.

Egilea: Luisa Aguilar ipuin
Ilustrazioak: André Neves
Argialetxea: Kalandraka

[IKUSI](#)




Emakunde organiza una serie de encuentros online para impulsar un debate y una reflexión compartida sobre la incidencia de la COVID19 en la igualdad

Más allá de la respuesta prioritaria desde el punto de vista sanitario a la pandemia generada por la COVID 19, esta crisis tiene y tendrá un impacto directo en muchos ámbitos de nuestra vida como el económico, por ejemplo, o también, entre otros, en el de la igualdad de mujeres y hombres que es necesario abordar. En este sentido, “COVID-19 y violencia contra las mujeres: aprendizajes y propuestas” fué el título de la primera mesa redonda online que Emakunde organizó dentro de un nuevo ciclo llamado “Notas para pasar a limpio” que pretende generar un debate y una reflexión compartida sobre la incidencia de la COVID19 en la igualdad y en la violencia contra las mujeres. La primera mesa redonda se celebró el 14 de mayo, con la participación de la antropóloga Mónica Ramos, la psicóloga especialista en violencia de género Norma Vázquez y el psicólogo que trabaja con hombres que han ejercido el maltrato, Jorge Freudenthal. La charla estuvo presentada por la directora de Emakunde, Izaskun Landaida, y moderada por la periodista Pilar Kaltzada.

El objetivo del ciclo es generar reflexiones, debates, recoger aportaciones y, lejos de quedarse en acciones puntuales, convertirse en un foro que pueda generar propuestas para el futuro. En palabras

de la directora de Emakunde, Izaskun Landaida, “nos ha parecido muy importante crear un espacio para compartir reflexiones y recoger aportaciones con el fin de profundizar en el trabajo que estamos llevando a cabo de identificación de los nuevos retos y desafíos generados como consecuencia de la pandemia en lo referente a la igualdad de mujeres y hombres”. Landaida asegura que el objetivo es “no dejar a nadie atrás, y poder afinar lo máximo posible en nuestras decisiones con la ayuda de personas expertas, movimiento feminista y administraciones y organismos a nivel internacional, entre otros”. Posteriormente se han realizado mesas redondas y encuentros sobre covid-19 y salud, Covid-19 desde el punto de vista del feminismo y un debate sobre la COVID-19 y su incidencia en la economía desde la perspectiva de género. Todas ellas están disponibles en la web de Emakunde. En esta misma línea, Emakunde ya puso en marcha un espacio específico de su página web en el que propone una serie de recomendaciones que ha complementado con otras provenientes de diferentes organismos internacionales para que las medidas que se adopten en el corto, medio y largo plazo sean lo más efectivas posibles, tanto para las mujeres como para los hombres.



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEEI ZUZENDUTAKO BERDINTASUN IKASTAROEN DATAK ETA FORMATOA ALDATU DIRA

Covid 19ak eragindako egoera kontuan hartuta, eta ikastaroak egitea bermatu nahian, Saileko berdintasunerako unitateak antolatutako bi ikastaroen formatoa eta datak aldatu egin ditugu. Ikastaro biak ONLINE izango dira. Izen emateko epea ere zabuldu dugu ekainaren 19rarte:

1. Impulsando la igualdad entre mujeres y hombres en el Departamento de Educación: sensibilización y conceptos (oinarrizkoa)

- Egunak: Irailaren 23, 24 eta 30 eta urriaren 1, 7, 8, 21 eta 22
- Orduetgia: 9.30-12.00
- ONLINE

2. Sakontzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean Hezkuntza Sailean: aurrera egin

- Egunak: urriaren 28 eta 29; eta azaroaren 11, 12, 18, 19, 25 eta 26
- Orduetgia: 9.30-12.00
- ONLINE
- Ikastaro hau egiteko ezinbestekoa da oinarritzko ikastaroa eginda izatea (IVAPek antolatzen zuena edo saileko berdintasun unitateak antolatutakoa).

Informazio gehiago behar baduzu, jarri saileko berdintasun teknikariarekin kontaktuan. (huisl212@euskadi.eus)

BA AL ZENEKIEN?

Aldundiek arreta psikologiko espezializatuko 4.200 saio baino gehiago eskaini dizkiete konfinamenduan indarkeriaren biktima diren emakumeei.

- Kasu gehienak osasun-krisia baino lehen ere artatzen ziren, eta aldi horretan artatzen jarraitu dira; 200 kasu inguru kasu berriak dira.

- Eusko Jaurlaritzaren SAITEVI Biktimei Laguntzeko Zerbitzuaren 24 orduko telefono-deiak % 25 igo dira martxotik apirilera.

- Apirilean %25ean jaitsi dira salaketak.

Iturria: [Emakundeko aldizkaria](#)

ESTÍBALIZ LINARES

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

ETA IKERTZAILEA



“El iceberg digital machista: Análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia de la CAE” izenburuko lanean Estibaliz Linaresek nerabeen artean Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren errealitate matxista digitalak aztertu ditu. Ikerketa 15 eta 17 urteren arteko nerabeekin egin du eta sare sozialak, bideo-jokoak, ziberkontrola eta ziberjazarpenarekin lotuta dauden hiru genero-arrakala digitalak zehaztu ditu. Tesi batetik abiatzen den ikerketa-lan horren helburua hezkuntzaren alorretik prebentzioa lantzea da, eta 2019an emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko Emakunderen VII. lehiaketa irabazi zuen.

Nolatan hasi zinen arrakala digital matxistak ikertzen?

Ziberjazarpena pairatu zuen neska baten kasuarekin hasi zen dena. Neska grabatu zuten harreman sexualak zituen bitartean, eta bideo hori asko zabaldu zen. Gerora neskek bere gorputza eta bere sexualitatearengatik ziberjazarpen sexuala eta sexista jasan zituen.

Hori aspaldi gertatu zen, arazo hauek oraindik planteatzen ez ziren garaian. Orduan ziberjazarpen terminoa erabiltzen zen jadanik, baina ez zen genero aldagaiarekin aztertzen. Hori izan zen sarean zabaltzen ari zen indarkeria agerian jartzera bultzatu ninduen. Horrez gain, nerabezaroa asko interesatzen zaidan gaia da eta, gaur egun, nerabeen mundua, mundu digitalarekin uztartuta dago. Haien bizitza osoa interneten zabaltzen dute eta, pandemia dela eta, egin den itxialdiarekin areagotu dela ikusi dugu.

Teknologien erabilera dela eta zer nolako desberdintasunak ikusi dituzue neska eta mutilen artean?

Generoaren araberako lehen arrakala-digitala teknologia horiek erabili ahal izatean datza. Baina Euskal Autonomia Erkidegoan

mutilak eta neskek berdintasunean daude kontu horretan. Hala ere, gure ikerketan trebetasun digitalekin lotutako bigarren arrakala-digitala agertu da, adibidez informatika ikasten ari direnen %80 gizonak direla aurkitu dugu. Emakumeak gizonak baino askoz traketsagoak sentitzen dira tresna horiek erabiltzeko orduan. Generoaren araberako bigarren arrakala-digital horrek neskek informatika alorretatik urruntzen ditu.

Generoaren araberako bigarren arrakala hori zergatik hasten da zabaltzen bigarren hezkuntzatik aurrera?

Aro horretan handitzen da arrakala, ikasleek erabaki asko hartzen dituzten garaia delako, gorputzak aldatzen dira, identitateak eraikitzen dira eta dena lehertzen da. Erabaki horien artean letren eta zenbakien arteko hautua dago eta, horretan, faktore askok izaten dute eragina, adibidez, familiako kideek eta adiskideek esaten dutena. Eta nerabeen artean genero etiketek baldintzatutako sozializazioaren eraginak ere garrantzia handia du. Hala ere, badaude haien etorkizuna teknologien alorrean bilatu nahi duten neskek, gutxi badira ere. Kasu horietan neskek informatikari lotutako emakume baten eredu hurbila edukitzen dute, eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza eta sozializazioa izaten dute.

Zure ikerketaren ondorioetan azaltzen da bideo-jokoek funtsezko papera dutela generoaren araberako bigarren eta hirugarren arrakalen artean, ez da horrela?

Bai horrela da, guztiz. Ikerketan oharreman dugu mutilek bideo-jokoekin gehiago lotzen diren neurrian, informatikaren inguruko ikasketak hautatzeko aukera gehiago dituztela. Baina bideo-jokoak eredu maskulino sexista eta matxistak jarraituz diseinatuta daude eta, horrek, mutilengan guztiz positiboa den lotura sortzen duen bitartean, neskegan gaitzespena sortzen du, eta mundu horretatik aldentzen ditu. Bideo-jokoak mundu teknologikoaren atea zabaltzen duten funtsezko tresnak dira, baina berdintasun eza bultzatzen dute gaur egun.

Zein da hirugarren genero-arrakala digitala?

Harreman, Informazio eta Komunikazio Teknologia modu desberdin batean erabiltzen dira sexuaren arabera, hau da, horien erabilera genero ereduaren arabera da, eta hor sortzen da arrakala. Neskek teknologia horiek batez ere harremanetarako eta komunikaziorako erabiltzen dituzten bitartean, mutilek dibertsio, esplorazio eta nabigaziorako erabiltzen dituzte. Horrela, mutilek teknikoagoa den erabilera egiten dute.

Hezkuntza sisteman nola landu daitezke ezberdintasun digital hauek?

Ikasleei zenbat eta presuntakuntza eta sentsibilizazio gehiago eskaini, orduan eta aldaketa gehiago sor daitezke. Egia da munstro baten aurka borrokatzen ari garela. Nerabeak modako bideo-jokoaren bertsio berriaren zain irrikan egoten dira, sexista, xenofobia eta homofobia dela jakin arren.

Esan beharra dago bideo-jokoekin jolasteak ez dituela berez nerabeak matxistago bihurtzen. Arazoa da bideo-jokoekin jolastea kultura maskulinoaren parte dela gaur egun.

Eta horri heldu behar diogu. Lan egiten jarraitu eta hezkuntza espazio malguak sortu behar ditugu. Bide horretan aurrerapausoak eman direla uste dut. Haien imajinariotik abiatuta lan egin behar dugu.

Nerabeen artean Harreman, Informazio eta Komunikazio Teknologien erabileretan joera positiboren bat aurkitu duzue?

Bai. Nerabeekin lan egin dudanean aldaketa positibo asko ikusi ditut. Ikerketan azaltzen den indarkeriaz gain nerabeek genero kode asko irauli eta urratu dituztela hauteman dugu. Zoragarria iruditzen zait gaurko nerabeek zenbait gauza zalantzan jartzea. Adin horretan gure belaunaldian horrelako kontuak ez ziren planteatu ere egiten. Adibidez beste gai batzuen artean sexu identitatea zer den, matxismoa zer den, pertsona trans bat izateak zer suposatzen duen eta berdintasunaz hitz egiten duten youtuberrak jarraitzen dituzte.

